

PEOI GIDARI DEIALDIA. ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA BEHIN BETIKO EBAZPENA.

Leitzan, Mendialdea Mankomunitateko egoitzan, 2025eko irailaren 30ean goizeko 12:00ak izanik, honako epaimahaikideak bildu dira:

- Unai Miranda Berroeta; lehendakaria
- Joseba Sanchez Arizmendiarieta; epaimahaikidea
- Iñigo Iparraguirre Larrañaga; epaimahaikidea, Jose Antonio Irizar Otamendiren ordezkari
- Maider Castilla Elarre; idazkaria

Merituen balorazioaren aktak 3 alegazio izan ditu, Unai Perez Sagastibeltza, Urko Gorostidi Mugicak eta Eneko Ciaurritz Marcok aurkeztutakoak, euskarazko frogak dela eta, proba nolakoa izan den galdetuz eta deialdiaren oinarrietan norberak aurretik egiaztatua duen euskara maila hobetzeko aukera dagoenik aipatzen ez dela adieraziz.

Aurkeztutako alegazioak ikusita, epaimahai honek merezimenduen balorazioa berrikustea proposa ikusi du. Horretarako, honakoa hartu du kontutan:

LEHENENGOA.- 3.oinarrian, izangaiek baldintza hau bete behar dutela zehazten da: ahozko B1 mailako euskararen ezagutza egiaztatzea. Horretarako, euskararen ezagutza-probak egin ahalko dira oposizio-fasea egin aurretik.

BIGARRENA.- Bestalde, 8.oinarrian, merezimendu bezala euskara ezagutza (B2 edo C1 maila), baloratuko dela adierazten da, alegatutako merezimenduen jatorrizko agiriak edo kopia egiaztatuak aurkeztuz. Atal honetan, ez da zehazten euskararen ezagutza-proba egin ahalko denik.

HIRUGARRENA.- Eskabide ereduari, izangaiek euskararen ezagutzaren inguruan titulua erantsi duela edo euskararen ezagutza egiaztatzeako proba egin nahi duela adierazi behar zuten.

LAUGARRENA.- Uxue Ezpeleta izangaiak, ez zuen agiria aurkeztu, eta azterketa egitea eskatu zuen. Euskararen Prestakuntza eta Egiaztapenaren Ataleko teknikariek, 2025eko irailaren 12an, euskararen ezagutza neurtzeko probak egin zituzten eta Uxuek honako emaitza lortu zuen: C1 Gai/ C1 Apto. Akta honen bidez ahozko maila neurtzen da.

Hau kontuan izanda, epaimahaiak alegazioak aintzat hartzea erabaki du, arrazoi hauengatik:

- Oinarrietan euskararen ezagutza merezimendu bezala baloratzeko proba egin daitekela espreski aipatzen ez denez, horrek desberdintasuna sor dezake proba egin nahi izan lezaketen beste hautagai batzuekiko.
- Euskara-probak ahozko trebetasuna bakarrik neurtu du, eta horrek ez du B2 edo C1 maila, bere zentzu orokorrean, frogatzen; izan ere, agiri hauetako bat lortzeko, ahozko mailaz gain, entzumen, ulermen eta idatzizko gaitasunak ere kontutan hartu behar dira.

Hau kontutan hartuta, puntuazioak berrikusi eta horrela geratu dira:

IZEN ABIZENAK	Lan esperientzia				Formazioa		Hizkuntza	Osotara
Aldalur Zulaika, Andoni	10p	0p	5p	0p	0p	4p	1p	20,00p
Apezetxea Zabaleta, Salvador	0p	0p	0p	0p	0p	2p	0p	2,00p
Aramburu Sudupe, Angel	0p	0p	0p	0p	0p	0p	2p	2,00p
Ballaz Barros, Jon	0p	0p	0p	0,25p	0p	0p	1p	1,25p
Ciaurriz Azanza, Elias	0p	7,5p	0p	0p	0p	0p	0p	7,50p
Ciaurriz Marco, Eneko	9,89p	0p	5p	0p	0p	0p	1p	15,89p
Ezpeleta Gago, Uxue	9,64p	0p	0p	0p	0p	0p	0p	9,64p
Gorostidi Mugica, Urko	10p	0p	0p	0,07p	0p	4p	2p	16,07p
Izagirre Ameztai, Zugaitz	0,09	0p	0p	0p	0p	0p	1p	1,09p
Lerchundi Lizaso, Imanol	0,01	0p	0p	0p	0p	2p	0p	2,01p

Lizartza Saizar, Peio	0p	0p	5p	0p	0p	0p	0p	5,00p
Perez Fuertes, Sergio	0,11p	0p	0p	0p	0p	0p	0p	0,11p
Perez Sagastibeltza, Unai	8,37p	0p	0p	0p	0p	2p	0p	10,37p
Rodriguez Barbero, Miguel Maria	0p	0p	0p	0p	0p	4p	0p	4,00p
Zabaleta Alduncin, Aitor	0p	0p	0p	3p	0p	3,5p	2p	8,50p

Eguerdiko 13:15ak izanik, epaimahaikideek, akta hau sinatzen dute, behar den tokietan beharrezko ondorioak sor ditzan.

MIRANDA
BERROETA UNAI
- 44134076C

Firmado digitalmente por
MIRANDA BERROETA
UNAI - 44134076C
Fecha: 2025.09.30
14:23:04 +02'00'

Unai Miranda Berroeta

Firmado por JOSEBA SANCHEZ
ARIZMENDIARRIETA
NIF: 72748614M

Joseba Sanchez Arizmendiarieta

Firmado por IPARRAGUIRRE
LARRAÑAGA IÑIGO - ***7542** el
día 30/09/2025 con un
certificado emitido por AC FNMT
Usuarios

Iñigo Iparraguirre Larrañaga

73423162D
MAIDER CASTILLA
(R: P7102551D)

Firmado digitalmente
por 73423162D
MAIDER CASTILLA (R:
P7102551D)

Maidar Castilla Elarre